

Maribel Vaquero

Senaturako Gipuzkoako hautagaia / Candidata al Senado por Gipuzkoa
Beasain 2019-11-06

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por la oradora en el acto.

Kanpainaren azken txanpan sartu gara. Atzo goizean hemen, Goierrin izan ginen. Besainen programa eta botoak banatzen izan ginen, Eusko Alderdi Jeltzalearen, Euskal Taldearen parte zareten Arantxarekin, Aitorrekin... Euripetan bai, eguraldiak ez zuen laguntzen, baina gu gurari eusten, Euskadiren aldeko botoa eskatzen, eta hauteskunde hauetan jokoan dugunaz ohartarazten.

Eguraldia zakarra dugu, egoera politikoaren antzekoa, nahasia da oso. Denetik entzuten ari gara, eta azken egunetan, alderdi estatuen mezuak gogortzen ari dira. Gorrotoa sortu eta zabaltzen duten mezuak dira. Eta horien aurrean beste batzuen ixiltasuna.

Duela egun batzu iritzi artikulua batean ondorengo esaldia irakurri nuen. "Cuando hay estupidez e incultura, el diálogo democrático se encuentra sin armas". Oso esaldi egokia iruditu zitzaidan, egunotan, kanpainako debateetan gertatzen ari dena deskribatzeko. VOXen mezu antidemokratikoen aurrean, Estatuko beste alderdiek inboluzio demokratiko gehiagorekin erantzuten dute. Xenofobiari eta arrazismoari tinko erantzun eta aurre egin beharrean, denak zein itsuago, ezjakinago eta antidemokratikoago. Eta hor dabil VOX alderdi politikoen ilegalizazioa eskatzen egunero, beraiek, frankismoaren oinordekoak, Franco goraiatzen dutenak, besteei demokrata izateko bete behar ditugun minimoak zeintzuk diren esaten. Alegia, Espainian demokrata izateko bete behar den guztia konstituzioaren 2. artikulua da, "la indisoluble unidad de la Nación española, patria común de todos los españoles", bestela, ilegalizazioa, eta kode penalaren aplikazioa!

Lo que está en juego, tras el 'todo vale' para la defensa del artículo 2', son las libertades fundamentales, y no solo las colectivas, también las individuales. ¿Dónde quedan el derecho de libertad de expresión, de información, el derecho a la libertad ideológica? ¿Dónde queda el principio de separación de poderes?

Y ahora Sánchez vuelve a vendernos en estos últimos días de campaña el miedo a VOX para llamar al voto de la mayoría cautelosa en el Estado, cuando su receta para hacer frente a tanto 'facherío' ha sido entrar en su juego, y anunciar medidas legales, más mano dura, más código penal, para solucionar un problema político que mañana, señores y señoras socialistas, seguirá siendo político. Pero ustedes sigan con su pugna de quien ocupará el asiento de la Moncloa.

Para resolverlo, democráticamente, tendrá que dar cauce legal mediante el ejercicio democrático del diálogo, acuerdo y del Pacto a las aspiraciones de las diferentes naciones. Naciones, sin estado, sí pero Naciones señor Sanchez.

Zein urruti gelditu da alderdi sozialista 70. hamarkadan defendatzen zuenatik, non "autodeterminación en la constitución" eskatzen zuen Euskadiko kaleetan. Bilbon, 1978ko Aberri egunean. Autodeterminazio eskubidetik, Kostituzioaren 2. artikulorearen aplikazio maltzurra. Demokrazia aldarrikatuzetik, kode penalaren aplikaziora! Hau da dugun panorama: frankistak Gorteetan eta demokrazia auzitan!

Horren aurrean, Euskaditik erantzun aktibo bat eman behar dugu. Igandean, botoen bidez, inboluzio demokratikoari EZ esango diogu, eta demokraziari bai! Eusko Alderdi Jeltzalearen aldeko botoekin bete behar ditugu hautestontziak. Balio duen botoa ez baita inkestetan kontatzen dena, azaroaren 10ean ematen dena baizik! Ez gaitezen lokartu! Azaroaren 10ean beasaindarrek, ordiziarrek, gipuzkoarrek eta euskal herritarrek aukeratzen dutena ez baita Estatuko presidente nor izango den. Ez. Azaroaren 10ean jokoan duguna Madrilen nork ordezkatzeko gaituen da. Gure interesak, beharrak nork defendatzeko dituen. Erantzuna erreza da: Eusko Alderdi Jeltzalea.

Azken egunotan, beraz, indar gehiagorekin, eskatu dezagun Euskadiren alde, bere herritarrekin, konpromisoa hartzen duen botoa, Eusko Alderdi Jeltzalearen aldeko botoa. Euskadi Madrilen defendatzeko duen botoa, Euskadiren instituzioak eta herri borondatea Madrilen defendatzen duen botoa. Politikaren ariketa demokratikoa eta zintzoa egiten duen botoa

Los hombres y mujeres del PNV estamos comprometidos con este Pueblo, sus instituciones y con lo que los vascos y vascas libremente decidan. No nos mueven otros intereses, otros objetivos, solo nos mueve Euskadi, nuestro compromiso comienza y acaba en Euskadi. Aquí. Hemen!

Y ante tanto ataque exigimos respeto a lo que Euskadi decida, para que se respeten nuestras instituciones y nuestros derechos históricos, necesitamos un grupo vasco fuerte en Madrid, necesitamos la fuerza que nos dan los votos. Respondamos activamente y democráticamente con nuestro voto a Casado, Rivera, Sánchez y Abascal. Euskadi nazio bat da!

Guk ez dugu pribilegiarik eskatzen, errespetoa exigitzen dugu. Ez dugu etsiko! Demokraziaren ariketa defendatzeko dugu. Euskal Taldea osatzen dugunok Madrilen Euskadiren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Azaroaren 10ean gure botoekin erantzun aktibo bat eman dezagun. 'Demokraziari bai!' esan dezagun. Euskadiren alde. Beasainen! Eusko Alderdi Jeltzalea. Hemen! Eusko Alderdi Jeltzalea! Gora Euskadi askatuta!!!!